Espediente zk.: 2025005
Kontratazioaren xedea: Industria Deskarbonizazio Programako 2025eko eta, hala badagokio, hurrengo urteetako deialdiko proiektuen ebaluaziorako laguntza-zerbitzuak ematea
Dokumentua: Preskripzio Teknikoen Agiria

1. Sarrera

2019ko abenduan Europako Batzordeak aurkeztu zuen Europar Batasuneko Itun Berdeak Europa 2050erako klimaren aldetik neutroa izango den lehenengo kontinentea izateko helburua ezarri zuen. Klimari buruzko Europako legediak (2021/1119 EB erregelamendua) legedi loteslean jaso du neutraltasun klimatikoaren konpromiso hori, eta tarteko helburu gisa ezarri du berotegi-efektuko emisioak gutxienez % 55 murriztea 2030erako, 1990eko mailekin alderatuta.

EAE mailan, 2024-2028 aldirako Gobernuaren (XIII. Legegintzaldia) «Ongizatean Hazi» programak berariaz hartzen du bere gain karbonoan baxua den ekonomia baterantz seguru aurrera egiteko konpromisoa, enplegua sortzeko eta industria eta teknologikoa garatzeko aukera gisa; nazioartean adostutako neutraltasun klimatikoko helburuak betetzeko konpromisoa hartzen du; eta batezbesteko munduko tenperatura 2 °C baino gehiago igotzea saihesten lagundu eta 2050ean berotegi-efektuko gasen emisioei dagokienez herrialde neutroa izan gaitezen saiatzeko ardura hartzen du.

Konpromiso horren barruan daude 2021eko abenduan Eusko Jaurlaritzak onetsitako «Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako 2021-2024 Plana» (ETKP 2021-2024) eta 2050 baino lehenago Euskadin neutraltasun klimatikoa lortzeko Trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko Legearen proiektua, 2023ko maiatzaren 16an Euskok Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak onetsia. EKTPak jarraipena ematen dio Euskadik klima-aldaketaren arloan politika aktiboak garatzen duen ibilbide luzeari. 2008-2012 aldirako Klima Aldaketaren aurkako Euskal Planaren ostean, 2015ean, 2050erako klima-aldaketaren Euskadiko estrategia, KLIMA 2050, argitaratu zen, Euskadin BEG emisioak gutxienez % 40 murrizteko 2030erako eta % 80 2050erako, 2005. urteko mailekin alderatuta.

Euskadik, 2000. urtean lehen aldiz egin zenetik, urtero egiten du berotegi-efektuko gasen inbentarioa. 2023ko inbentarioko aurrerapenak adierazten du Euskadin BEG emisioak % 8,4 murriztu zirela aurreko urtekoekin alderatuta. 2023. urtean, Euskadiko BEG emisio absolutuak 17 milioi tonakoak izan ziren; hortaz 2005. urtearekin alderatuta, % 33ko murrizketa egon zen.

Neutraltasun klimatikoko helburuak lortzeko, Euskadiko arlo ekonomikoetan ahalegin handiak egin beharko dira, batez ere industria-sarean, industriako ekoizpen-instalazioak deskarbonizatzeko inbertsioak egin beharko baitituzte. Inbertsio pribatu horiek funts publikoen laguntza egokia izan beharko dute, baina, aldi berean, estatu-laguntzei buruzko Europako araudia errespetatu beharko da.

Zeharka, neutraltasun klimatikorako trantsizioak EAEko industria-sektore estrategikoak garatzeko aukera ere ematen du, hala nola energia berriztagarrien, hidrogeno berdearen eta balio-kate osoan zehar energia biltegiratzearen sektoreak Era berean, teknologia horiek zabaltzeak lagundu egingo die autohornikuntza energetikoari eta baliabideen erabilera efizienteagoari; horrek ingurumena zaintzea eta klima-

aldaketaren aurrean erresilientzia handiagoa izatea ekarriko du, eta, gainera, kanpoko energiarekiko mendekotasuna txikiagoa izango da. Energia aurrezteak eta energia-efizientziak ere eginkizun garrantzitsua izan behar dute, lehen mailako eta azken energiaren kontsumoak murrizten baitituzte. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuordearen (gaur Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila, "**ITEJS**") 2024ko martxoaren 26ko aginduaren bidez, 2024 ekitaldirako EAEn inbertsioa egiten duten enpresei dirulaguntzak emateko programen deialdia egin zen, industriako ekoizpen-instalazioetan deskarbonizazioaren bidez ingurumenaren babesa hobetzen lagunduko duten jarduketetarako. Hain zuzen, «Industria Deskarbonizazio Programa» da (2024ko apirilaren 10eko 71 zenbakiko EHAA).

2024ko Oinarrietako 7. artikuluan SPRI izendatu zen Programaren erakunde laguntzaile gisa eta, besteak beste, honako eginkizun hauek esleitu zitzaizkion: *"a) Dokumentazio teknikoa zuzentzeko errekerimendua, beharrezkoa bada. b) Dokumentazioa aztertzea eta inbertsioak identifikatzea. c) Inbertsioen analisi teknikoak eta ebaluazioa. d) Dirulaguntza emateko eskatutako baldintza teknikoak edo eskakizunak betetzen direla egiaztatzea. e) Inbertsioen txosten teknikoa lantzea, eta Industriaren eta Energia Trantsizioaren Zuzendaritzara bidaltzea, bitarteko telematikoen bidez".*

Hori guztia dela eta, eta, hala badagokio, ITEJSk 2025ean sustatuko den Deskarbonizazio Programaren deialdia aurreikusita, baita SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari agindu ahal zaizkion ebaluazio- eta analisi-lanak ere, eta espero daitekeen proiektuen bolumena aintzat hartuta, SPRIk energia-proiektuak ebaluatzen espezializatua den kanpo-zerbitzua kontratatu behar du, egin beharko diren lanetan laguntza eman diezaion.

Orientabide gisa balio dezan eta inola ere loteslea izan gabe, honako hauek dira aurreko deialdiaren datuak:

- Aurkeztutako proiektuak: 68
- Onetsitako proiektuak: 58
- Emandako dirulaguntza, guztira: 17,6 M €
- Diruz lagun daitekeen inbertsioa, guztira: 85,6 M €

2. Kontratazioaren xedea

Kontratazioaren xedea da SPRIri laguntza ematea ITEJSk, hala badagokio, deituko duen Industria Deskarbonizazio Programaren 2025eko deialdiaren baitan aurkezten diren proiektuen ebaluazio teknikoan.

Lanak abiarazteko hasierako bilera aurrez aurre egingo da SPRIren bulegoetan. Gainerako bilerak modu telematikoan egingo dira, beste erara egitea justifikatzen duten egoera partikularrak daudenean salbu.

3. Garatu beharreko jardueren deskribapena

Kontratuaren adjudikaziodunak laguntza eman beharko dio SPRIri ITEJSk, hala badagokio, deituko duen Industria Deskarbonizazio Programaren 2025eko deialdiaren baitan aurkezten diren proiektuen ebaluazio teknikoan.

Programa horren helburua izango da aktibo finkoen dirulaguntza ematea industria-produktu/-prozesuari lotutako industria- eta zerbitzu-enpresei, baldin eta, deskarbonizazioaren bidez, industriako ekoizpen-instalazioetan (berriak eta/edo jada daudenak) ingurumenaren babes-maila hobetzen badute, eta, hortaz, berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioa murrizten laguntzen badute.

Adjudikaziodunak honako eginkizun orokor hauek bete beharko ditu aurkeztutako espediente bakoitzeko (aldi batera utzi gabe argitaratzen diren oinarrien edukian egin beharreko egokitzapenak):

1. Laguntza ematea memoria teknikoaren hasierako ebaluazioan. Programaren oinarriekin bat, ebaluazio-irizpide bakoitzerako puntuazioa proposatuko da, puntuazioaren motibazioa barne.

   Proposatutako puntuazioa modu argi eta zehatzean justifikatu eta ondo ulertzeko behar den informazioa eman beharko da. Hala, esleitutako puntuazioa frogatzen/egiaztatzen duten proposamenaren alderdiak deskribatu beharko dira, baita lortzen diren ondorioak justifikatzeko garrantzitsua den informazio gehigarri guztia ere. Justifikatzeko iruzkinek koherenteak, zorrotzak eta zehatzak izan behar dute.

2. Memorian aurkeztutako plan ekonomiko-finantzarioa aztertzea, eta zehaztutako aktiboek honako hauek betetzen dituztela egiaztatzea: alde batetik, kontabilitate-epigrafeak eta inbertsio hautagarria, deialdiaren oinarriekin bat; eta, bestetik, industria-proiektuan aurkeztutako aktiboak bat datozela eskaeran aurkeztutako inbertsioekin.

3. Proiektuak egiteko epeak egiaztatzea, programan ezarritako oinarriekin bat.

4. Enpresak aurkeztutako emisioak kalkulatzeko Excel-a egiaztatzea, ziurtatuz atal bakoitzeko kontsumoen unitateak (adibidez: erregaiak, lehengaiak, hondakin eta hozgarriak kudeatzea, edo antzekoak), dagozkien emisio-faktoreen unitateak, eta kalkulu-orrian sartutako aktiboen zenbatekoa

koherenteak direla eta bat datozela memorian deskribatutakoarekin, eta oinarrietan jasotako eskakizunak betetzen dituztela.

5. Espediente bakoitzaren azken ebaluazio-txostena idaztea:

   Txosten horrek honako hauek jasoko ditu: proiektuaren helburu teknikoaren deskribapen laburra, motibazioa, irismena eta fabrika deskarbonizatzeko xedez zein aktibotan inbertituko den; ebaluazio-irizpide bakoitzaren azken nota, emisioak kalkulatzeko Excel-ean lortutakoarekin bat; eta eskaeran aurkeztutako aktibo bakoitzaren laburpen-taula, besteak beste, gutxienez diruz lagunduko den aktiboa, erregai-mota, urteko kontsumoa eta inbertsioari lotutako zenbatekoa deskribatzen dituena.

   Ebaluazio-prozesuan aldaketak egin badira enpresa onuradunak aurkeztutako emisioak kalkulatzek Excel-ean, aldaketa horiek behar bezala justifikatu eta aldaketa horien arrazoiak eman beharko dira. Era berean, irizten bada aurkeztutako aktiboren bat ezin dela diruz lagundu, baztertzeko arrazoiak justifikatuko dira, eta programaren eskakizunak ez betetzea dakarren oinarrietako artikulua zehaztuko da.

6. Behin emisioak kalkulatzeko Excel-a ebaluatuta, proiektu bakoitzaren datuak espedienteak ebaluatzeko baterako Excel batean sartu beharko dira, balio nagusiak hartuko dituena (aurkeztutako inbertsioaren zenbatekoa, onetsitako inbertsioaren zenbatekoa, inbertsioaren aurretik eta ondoren aurkeztu eta onetsi diren kontsumoak, saihestutako emisioak edo antzekoak, besteak beste).

Ebaluazio tekniko eta ekonomikoko txostenek kalitate-irizpide hauek bete behar dituzte:

- Argitasuna. Edukiak argi azalduko dira, helarazi nahi denari buruz zalantzak sor ditzakeen lausotasunik edo zehaztugabetasunik gabe.
- Adierazgarritasuna. Egiaztatutako gertakariak eta lortutako ondorioak ondoen ezagutzea ahalbidetzen duten elementuak jasoko ditu txostenak.
- Zehaztasuna. Ebaluazio-txostenaren edukia zehazki eta labur garatuko da, eta ez da egiaztapenak, ondorioak eta gomendioak ulertzeko erabakigarria ez den xehetasunik sartuko.
- Koherentzia. Ebaluazio-txostenean jasotako iruzkinek ibilbide logikoa izango dute gaietan, eta iruzkinei esker lortutako egiaztapen, ondorio eta gomendioak ulertu ahal izango dira, orokorretik hasi eta zehaztasunetara. Gainera, ebaluazio-txosteneko D puntuan jasotako beharrezko baliabideei buruzko proposamenekin bat etorriko dira.
- Zorroztasuna. Edukiak zehazki azalduko dira, egiaztapenen baliozkotasuna bereizteko beharrezko elementuak jasoko dituzte eta lortutako ondorioak nahikoa justifikatuko dira.
- Linguistikoak: Hornitzaileak bermatu beharko du zerbitzua Euskadiko bi hizkuntza ofizialean ematen dela (Euskara eta Gaztelania).

Era berean, kalitate-irizpideez gain, ebaluazio teknikoko txostenek AKPAn ezarritako epeak bete beharko dituzte. Horiek proiektu honetako SPRIko arduradunei bidali beharko zaizkie, banan-banan, proiektu bakoitza ebaluatu ahala.

Kalitate-irizpideak nahiz adierazitako epeak kontratua egikaritzeko oinarrizko baldintzak dira. Aurreko paragrafoan deskribatutako kalitateari buruzko edozein irizpide betetzen ez bada, aztertu eta ebaluatutako proiektuaren % 30era arteko zehapen baliokidea aplikatu ahalko da.

3.1. Zerbitzua dimentsionatzea

Adjudikaziodunak, derrigorrez, kontratuaren balio zenbatetsia agortu arte esleitzen zaizkion proiektu guztiak ebaluatu beharko ditu, eta zerbitzuak adierazitako gehieneko epean eta, hala badagokio, SPRIk ezarritako epean, egikaritu beharko ditu, baimendutako sarbide puntualen bidez. Erabilera horrek ez du inola ere ekarriko SPRIrekiko eta prestazioa egikaritzen duten pertsona zehatzekiko mendekotasunik. Honako zenbatespen hauek egiten dira, baina ez dira lotesleak kontratua egikaritzeko, eta SPRIk beharrezkoak diren ebaluazioak agindu ahalko ditu kontratuak iraun bitartean; muga bakarra kontratuaren balio zenbatetsia izango da:

- **2025 ekitaldirako Industria Deskarbonizazioa:** 135 proiektu inguru.

4. Zerbitzu hau gauzatzeko esleitutako langileei eskatu ahal zaizkien gaitasunak eta horien baldintzak

Kontratua egikaritzeko izendatutako langileei eskatu beharreko baldintzak eta gaitasunak hauek dira:

- Taldea, gutxienez, hiru (3) kidek osatuko dute. Taldearen osaketak proiektuaren arduradun bat izatea aurreikusi beharko du, eta energia-proiektuetan espezialistak diren gutxienez bi ebaluatzaile senior izango ditu. Hala ere, pertsona gehiago proposatu ahalko dira, eta, zerbitzua hobeto emango dela egiaztatzen bada, modu positiboan zenbatetsi ahalko dira.
- Proiektuaren arduradun orokorra eta kontratuaren arduradunarekin solaskide izango den pertsona bat izendatuko da, horrelako lanetan ezagutza eta esperientzia nahikoa izango duena. Bere ardura izango da proposatutako taldeak edo pertsonak egindako ebaluazio-txostenak gainbegiratu eta homogeneizatzea, eta bermatu egingo du preskripzio teknikoen agiri honetako 3. apartatuan jasotako eta errekeritutako kalitate-beteklizunak betetzen direla.
- Agiri honetako 3. apartatuan deskribatutako lanak egikaritzeko, lantaldea osatzen du(t)en pertsonak/ek esperientzia izan beharko dute Industria Deskarbonizazioko dirulaguntza-programaren gaiari lotutako proiektuak

ebaluatzen, eta orientabide gisa hartu ahalko dira programaren oinarri arautzaileetan deskribatutakoak. Pertsona hori(ek) enpresa adjudikaziodunaren mende egongo d(ir)a.

- Rolak eta esperientzia-urteak:
    - Proiektuaren arduraduna. Gutxienez 10 urteko esperientzia izango du proiektuak koordinatzen.
    - Energia-proiektuak ebaluatzen espezialistak diren ebaluatzaile seniorrak. Gutxienez 5 urteko esperientzia eta lanen xedea betetzeko prestakuntza tekniko egokia izango dute.

- Adjudikaziodunak ezingo du proiektu baten ebaluazioan parte hartu, baldin eta horren garapen-prozesuan tartean egon bada (pertsona juridiko kontratista edo zerbitzua ematen duen taldea) edo proiektua balioztatzeko inpartzialtasuna eta independentzia arriskuan jar dezakeen harreman zuzen edo zeharkakorik badu. Interes-gatazka egon daitekeela jakiten duen adjudikaziodunak SPRIri eman beharko dio horren berri SPRIk zerbitzuak eskatu eta bost (5) egun balioduneko epean.

Kontratuari esleitutako langileak beren-beregi enpresa adjudikaziodunaren mende egongo dira. Ez dute inola ere lan-, kontratu- ala funtzionario-harremanik edo antzekorik izango Eusko Jaurlaritzarekin, SPRIrekin eta/edo horiek kide diren sozietateekin, ez kontratuaren indarraldian, ez eta kontratu hori amaitutakoan ere.

5. Gainbegiratzea eta zerbitzuaren kontrola

Adjudikaziodunak proiektuaren eskaera-mailara egokitu beharko du zerbitzuari esleitutako pertsonen arduraldia.

Kontratistak egindako lanak kontratuaren arduradunak gainbegiratuko ditu zuzenean, eta arduradun horrek egoki irizten dizkion azalpen eta informazioak eskatu ahal izango dizkio, kontratatuko lanak behar bezala garatzen direla egiaztatzeko.